

entzia eta
iltzearen
tz biltzen
orretan,
ektiboan.



ERKITALDIA

tea, baliabide dezente behar baitira, eta gu zine-
egituraz baliatuko gara haien lanak erakutsi ahal
Xabier Erkizia.

larunbatean, berriz, ohiko jaialdiaren ereduari
ote. Egun bakoitzean, musika esperimental lan-
u talderen kontzertuak izango dira. Guztien arte-
ndizabal artista nabarmenduko da. Euskal Herri-
New Yorken, Erroman eta beste hainbat hiritan
sperientzia abian jarritakoa da. Beste bi lagune-
la Berara, eta kontzertu bitxi samarrak eskainiko
dituzte. Horietako bat bizikleta gainean.

Igandean, egun lasaiagoa izango du Ertz
jaialdiak. Besteak beste, kontzertu pedagogiko
bat izango da gaztetxoentzat.

ertzleihoa.
hoa herri-
aurkezte-
Asier Go-
tatu zuten
zen *Ateka-*

ina, Asier
te hainbat
Horietako
aldia. Ber-
latu asmo
sta batzuk
batzuekin
ta jada ba-

Berako er-
oak beste
o ditu. Do-
n... «Eska-
artista bat
a aberastu
ko kideak
kin batera

ua aurkez-
izte. Web-
ren osota-
aldi osatu
iere lanki-

ak azaldu
ara irekita
etela ixten
to, Berako
aina beste
oe.

u nabaria
zeko balio
nari arreta
e, AEBeta-
utako me-

o hartuko
bestelako
u. Are eta
azpiegitu-
lgune eta
dute hiz-
oposa da



Ertz kolektiboko kideak, argazkian ere mutur-muturrean ageri dira.

'Atekaleun' lehenengo emaitza



...bideak

Bideetan zehar, bideak zeharkatuz, za-
harkituz. Oinotsak diruditen horiek torloju
mekanismo baten bihotz taupadak omen dira,
urteak eta urteak bideak zaharkituz lan egiten duen torlojuarenak.
Zer dira ba bidean uzten ditugun pausoak? Orainaren arrastoak,
ezabatzen joaten diren aztarnak, uneoro birziklatzen diren espero-
ak. Jarraitu bidean eta entzun animalia hiltzen elkarizketak,
erne, unerik isilenean aditu beharko dituzu eta. Torlojuak bideak
luzatzen ditu, distantziaren ardurapean, geroaren zain.

...errekak

Euria ari du, torlojuak agintzen du bidearen patua eraldatzen
doan heinean. Mekanikoki funtzionatzen duen prozesu zientifikoa
da. Zubi guztien azpitik eta sasi guztien gainetik entzun daitezke ur
doinuak, sorginkeriaz beteak, txori zaharren ondolik pasa eta mar-
marka entzuten diren bitartean. Igel familiak bekaizkeriaz aditzen
ditu ur-kantak. Doinu asko dakizki errekak: zeruari abestutakoa,
iturriari erakutsitakoa, aterpean dagoenari abestutakoa... abesti
guztiak itsasoan bukatuko balira bezala.

...zerua

Kexa eta kexa, kexati xamarra agertu zaigu zerua, ez al zaigu ba
buru gainera eroriko? —galiar amesgaiztoa—. Zeruak pauso luxe
edo motxak eman ditzake. Batzuetan txistuka aurkez dezake bere
burua eta bertzetan auhenka soma daiteke gerturatzeaz dagoela
iragarritz. Batzuk, ordainetan, akatzen saiatzen dira, isilune osoa
lortzearen edo...zeruak ez luke inongo kupidarik eduki behar

Iban Urizar ■ Musikologoa

'Atekaleun'

Egileak: Asier Gogortza eta
Xabier Erkizia

Argazkiak: XX, zuri-beltzean eta
estenopeika teknikaz eginak.

Musika: 15 minutu ingurukoa,
kalean eginiko grabazioetan
oinarrituriko nahasketak.

Prezioa: 12 euro

Informazioa: www.ertza.net

Erosterako: atekaleun@ertza.net

Aurkezpena: Bihar, 22:00etan,
Elgoibarko gaztetxean.

Ertz kolektiboak proposatzen duen lankide-
tzaren lehenengo emaitza gauzatu da jada.
Atekaleun izena hartu du, eta liburu-cd bat
da. Horren arduradunak Berako bi artista
dira, argazkilaria bat eta musikaria bat: Asier
Gogortza eta Xabier Erkizia.

Atekaleun Bera eta Sara herriek muga
duten lekuari emandako izena da, Larrun
mendiaren magalean. Asierrek eta Xabierrek
leku horri buruzko gogoeta egin dute, eta
ikusteko zein entzuteko balio duen euska-
rrian islatu dute.

Batetik, argazkiak daude, hiru ataletan
banatuta: bideak, ibaiak eta zerua. «Bideekin, bidaia bat proposatu nahi
izan dut, niri egokia iruditu zaidan bide bat», esan du Asierrek. «Herriak,
urteetan, beste herri eta pertsonekin komunikatzeko izan dituen hiru
bide fisikoak aurkezten dira», gehitu du Xabierrek.

Bide horietako bakoitza hitzaurre baten bidez azalduta dator. Iban
Urizar musikologoa, Xabi Ubeda argazkilaria eta Juainas Paul historia-
laria arduratu dira horiekin. Asierrek eta Xabierrek, berriz, teknika be-
reziak baliatu dituzte beren lanak egiteko. Argazkiak zuri-beltzekoak di-
ra, estenopeika teknikarekin eta Asierrek sortutako argazki makinekin
eginak. Txirriskak gordetzeko kutxatxoekin eginikoak dira. Xabierrek,
berriz, *Atekaleun* inguruan eginiko grabazioak erabili ditu; horiek nahasi
eta ordu laurden inguruko lan bat sortu du.

Esperientzia berri hau «lankidetzaren interpretazio» bat dela diote bi
artistek, herrian kokatutakoa, baina aurrerantzean etorriko direnen
aurrerari izan nahi duena. Egileek bi gomendio igortzen dituzte: egokia-
goa da bi informazioak (musika eta irudiak) aldi berean ez jasotzea, eta,
ahal dela, musika kaskoekin entzun behar da. Formatu oso txukunean
aurkeztu dute, erabilerraza eta atsegina da. Berezia. Merezi du.